

5 FITXA

ONDAREA ETA EKONOMIA

Bilera honen helburua gure zonaldeko parrokien egoera ekonomikoa nolakoa den elkarri adieraztea da, eta honetaz jabetzea: ekonomikoki zein alderdi on eta zein zailtasun ditugun adieraztea. Egoera honetaz hobeto jabetzeaz gainera, proposatzen ditugun irakurketen bitartez Elizak gai honen inguruan bultzatzen dituen orientabideak gogoratu eta indartzea ere badugu helburu: nola pausoak ematen jarraitu autofinantziaziorako bidean, eta gero eta gardenagoak izan gaitezen zer egin dezakegun.

Egokia iruditzen bazaizue, hasierako talde honen bilerara parroketako ekonomoak gonbidatu daitezke, bileraren hasieran, laburki, parrokien egoera ekonomikoaren berri eman dezaten.

Gaia argitzeko, Gotzain jaunaren Pastoral Gutunaren 123-124 zenbakiak irakurtzea komeni da, "Harengan gure itxaropena". Era berean, gaian sakontzeko, "Biziera Sagaratutako Institutuetan eta Bizitza Apostolikoko Elkarteetan ondasunak kudeatzeko orientabidezko lerroak" irakurtzea gomendatzen dugu. Nahiz eta gutuna bizitza kontsokratuko institutuei eta bizitza apostolikoko elkarteei zuzenduta egon, gure ekonomia- eta ondare-kudeaketa modu errazean argi dezake. Azkenik, Sinodoaren "Por una Iglesia sinodal: comunión, participación y misión" azken dokumentuko 95-102. puntuak ere gehitu ditugu irakurtzeko.

. TOPAKETA AURRETIKO LANA

1. GAIA ARGITZEKO

Irakurri ditzagun Gotzain jaunaren «Harengan gure Itxaropena» gutuneko «Ekonomia, ondarea, iraunkortasuna» ataleko 123-124 zenbakiak, fitxa honetan azaltzen eta argitzen delako galdetu nahi dugun errealitatea. Gure komunitateetako ondasunen kudeaketa zuzena eta osasuntsua bultzatzen duten zenbait elementu eta prozedura ere ematen dizkizuegu ("Biziera Sagaratuaren Institutuetan eta Biziera Apostolikoko Elkarteetan ondasunak kudeatzeko orientabide-lerroak gutunean oinarrituta"). Sinodoko azken dokumentuko 95-102. puntuak ere irakur ditzagun.

Testuak:

1- "Harengan gure Itxaropena": «Ekonomia, ondarea, iraunkortasuna»

123. Gure kristau elkarteen ondare eta ekonomia gaien kudeaketa xumea izan da betidanik, «familiarra». Gaur egun, ordea, gure gizartearen konplexutasunak, legediek eta

administrazioen eskakizunek gai horiek behar bezala kudeatzera eta modu profesionalagoan maneiatzera behartzen gaituzte. Gure baliabide ekonomiko mugatuak optimizatzeko modurik onena da, eta, egia esan, ebanjelikoagoak izaten laguntzen digu. Elizbarrutiko zerbitzuek lagunduta eta elizbarrutiko protokolo onartuek bideratuta, parrokiek euren ondasunen kudeaketa onena bilatu behar dute, misioari zerbitzu hobea emateko. Gure betebeharra da ondo kudeatzea eta gardenak izatea, jardueren, erabakien eta kontuen berri emanez. «Eliza jabetzen da bere ondasunak zaintzeko eta arduraz kudeatzeko duen erantzukizunaz, bere ebanjelizazio-misioaren argitan eta behartsuei laguntza berezia eskainiz».

124. Arlo hori ezagutzen duten boluntarioak inplikatzuz eta zeregin horretan modu koordinatuan lan eginez bereizmen hobean, kudeaketa eta aurreikuspen hobean irabaziko dugu, eta, aldi berean, ahal den neurrian, gure elkartearen finantzaketa eta behartsuei ematen diegun laguntza optimizatuko dugu. Kristau elkarte guztien betebeharrak kanonikoa da «ekonomia kontseilu» bat izatea, ondo bideratu eta tokian-tokian zeregin hori zainduko duena. Elkarte guztietan benetan funtzionatzearekin amets egiten dut. Bestalde, ondare historiko, arkitektoniko eta artistikoaren etorkizunean pentsatu behar dugu. Egia esan, desproporzio handia dago mantentzeak dakarren eta kristau elkarteak benetan sostenga dezakeenaren artean. Espero dugu administrazio publikoek lan hori baloratzen eta horretan ere konprometitzen jarraitzea. Denon ardura da mantentzea eta hurrengo belaunaldiei ematea. Zalantzarik gabe, elizbarrutiko pertsona kualifikatuaren talde on batek, euren artean eta elizbarrutiko administrazioarekin ondo koordinatuta, zonaldeetan gure ondasun eta baliabideak modu eraginkorrean kudeatzen lagunduko luke. Gaur egungo sei artziprestaldeetako bakoitzean dozena erdi boluntario aurkitzea dut amets zeregin horretarako.

2- Gure komunitateetako ondasunen kudeaketa zuzena eta osasuntsua bultzatzen duten zenbait elementu eta prozedura.

- Karisma eta misioa

Fundazioaren karismarekiko eta, ondorioz, Elizaren ondare espiritualarekiko leialtasuna, eskakizun ebanjelikoekin batera, hartzen diren erabakiak eta esku-hartzeak ebaluatzen lehen irizpidea da. Ekonomia eta ondare orok Ebanjelizatzearen zerbitzura egon behar du.

- Gardentasuna eta kudeaketa konpartitu eta kontrastatua, jardun egokiaren berme

Lekukotza ebanjelikoak eskatzen du ondarearen eta ekonomiaren kudeaketa gardentasun osoz egitea, lege kanoniko eta zibilen errespetuan, pobrezia mota ugarien zerbitzura. Ondasunen bidez, eginkizuna printzipio ebanjelikoak errespetatuz egin behar da, eta, aldi berean, ekonomia-helburuekin.

Gardentasuna funtsezkoa da misioaren eraginkortasunerako. Ekonomia eta ondarearen inguruko informazioa elkarbanatu eta kontrastatzeko eskatzea, ez da ulertu behar erakunde horren autonomia mugatzeko edo konfiantzarik eza bezala; aitzitik,

elkartasunerako eta gardentasunerako zerbitzu dira, eta administrazio-lan delikatuak egiten dituztenak babesteko ere balio dute.

Informazio ekonomikoa eta ondareari dagokiona elkarbanatu eta kontrastatzeak - zuzenbide unibertsalak eta propioak zehazten duen moduan- ez dio bakarrik arduradunei dagokien kontrol-betebeharrari erantzuten, baizik eta ezinbesteko elementua da eliz ondasunen izaeragatik eta izaera publikoagatik, hau da, Elizaren berezko helburuen zerbitzura dauden bitartekoengatik. Zentzu horretan, ekonomiaren kudeaketa gardena eta eraginkorra bermatzeko barne-kontrolen sistemak ezartzearen garrantzia azpimarratzen dugu.

- Autofinantzaketa eta iraunkortasuna

Elizaren finantzazioa erabakigarria da bere sostengu eta garapenerako, bere eginkizuna eta jarduerak aurrera eramateko aukera emanez. Baliabide ekonomikoak funtsezkoak dira gastu operatiboak, azpiegitura-proiektuak eta karitate- eta ebanjelizatze-ekimenak babesteko.

Gaur egun, Elizak hainbat iturritako diru-sarrerak lortzen ditu:

- **Eliztarren ekarpenak:** Mezetan egindako diru-bilketak, dohaintzak, kuotak, herentziak eta ekarpen ekonomikorako beste modu batzuk.
- **Zerga-esleipena:** Errenta-aitorpenean elizari borondatez esleitzen dizkioten zergadunen zergen zati bat.
- **Beste diru-sarrera batzuk:** Elizak ere diru-sarrerak sortzen ditu higiezinaren alokairuaren bidez, funts ekonomikoen etekina...
- **Diru-laguntzak eta funtsak:** administrazio publikoak Elizaren finantzaketa-premia batzuk babesten ditu (ondare historikoaren kudeaketa, hezkuntza eta gizarte-arloa).

Egungo egoerak diru-sarrerak dibertsifikatzeko, gastuak optimizatzeko eta funtsen kudeaketan gardentasuna sustatzeko beharra dakarkigu.

3-Sinodoko azken dokumentua: Por una Iglesia sinodal: comunión, participación y misión

Transparencia, rendición de cuentas y evaluación

95. El proceso decisional no concluye con la toma de decisiones. Debe ir acompañada y seguida de prácticas de rendición de cuentas y evaluación, en un espíritu de transparencia inspirado en criterios evangélicos. La rendición de cuentas del propio ministerio a la comunidad pertenece a la tradición más antigua, que se remonta a la Iglesia apostólica. El capítulo 11 de los *Hechos de los apóstoles* nos ofrece un ejemplo de ello: cuando Pedro regresa a Jerusalén tras haber bautizado a Cornelio, un pagano, y “los creyentes circuncidados le increparon diciendo: ¡Has entrado en casa de hombres incircuncisos y has comido con ellos!” (Hch 11,2 3). Pedro les responde explicando las razones de sus acciones.

96. En particular, con respecto a la transparencia, surgió la necesidad de iluminar su significado vinculándola a una serie de términos como verdad, lealtad, claridad, honradez, integridad, coherencia, rechazo de la opacidad, la hipocresía y la ambigüedad, y ausencia de segundas intenciones. Se hizo referencia a la bienaventuranza evangélica de los puros de corazón (Mt 5,8), al mandato de ser “sencillos como palomas” (Mt 10,16) y a las palabras del apóstol Pablo: “hemos renunciado a la clandestinidad vergonzante, no actuando con intrigas ni falseando la palabra de Dios; sino que, manifestando la verdad, nos recomendamos a la conciencia de todo el mundo delante de Dios” (2 Cor 4,2). Se hace referencia, por tanto, a una actitud subyacente, enraizada en la Escritura, más que a un conjunto de procedimientos o requisitos administrativos o de gestión. La transparencia, en su correcto sentido evangélico, no compromete el respeto a la intimidad y a la confidencialidad, la protección y el cuidado de las personas, de su dignidad y de sus derechos, incluso frente a pretensiones indebidas de la autoridad civil. Todo ello, sin embargo, nunca puede justificar prácticas contrarias al Evangelio ni convertirse en pretexto para eludir o encubrir acciones del mal. En todo caso, por lo que se refiere al secreto confesional, “el sello sacramental es indispensable y ningún poder humano tiene jurisdicción sobre él, ni puede revocarlo” (Francisco, *Discurso a los participantes en el XXX Curso sobre el Foro Interno organizado por la Penitenciaría Apostólica*, 29 de marzo de 2019).

97. La actitud de transparencia, en el sentido que acabamos de indicar, constituye un guardián de esa confianza y credibilidad de las que una Iglesia sinodal, atenta a las relaciones, no puede prescindir. Cuando se viola la confianza, son los más débiles y vulnerables quienes sufren las consecuencias. Allí donde la Iglesia goza de confianza, las prácticas de transparencia, rendición de cuentas y evaluación contribuyen a consolidarla, y son un elemento aún más crítico allí donde la credibilidad de la Iglesia debe ser reconstruida. Esto es especialmente importante en el cuidado y la protección de menores y de personas vulnerables (*safeguarding*).

98. Estas prácticas contribuyen a asegurar la fidelidad de la Iglesia a su misión. Su ausencia es una de las consecuencias del clericalismo y, al mismo tiempo, lo alimenta. Se basa en la suposición implícita de que los que tienen autoridad en la Iglesia no deben rendir cuentas de sus acciones y decisiones, como si estuvieran aislados o por encima del resto del Pueblo de Dios. La transparencia y la responsabilidad no sólo deben exigirse cuando se trata de abusos sexuales, financieros y de otro tipo. También concierne al estilo de vida de los pastores, los planes pastorales, los métodos de evangelización y el modo en que la Iglesia respeta la dignidad de la persona humana, por ejemplo, en lo que respecta a las condiciones de trabajo dentro de sus instituciones.

99. Si la Iglesia sinodal quiere ser acogedora, la rendición de cuentas debe convertirse en una práctica habitual a todos los niveles. Sin embargo, quienes ocupan puestos de autoridad tienen una mayor responsabilidad a este respecto y están llamados a rendir cuentas a Dios y a su Pueblo. Si bien la práctica de rendir cuentas a los superiores se ha conservado a lo largo de los siglos, es preciso recuperar la dimensión de la rendición de cuentas que la autoridad está llamada a dar a la comunidad. Las instituciones y procedimientos consolidados en la experiencia de la vida consagrada (como los capítulos, las visitas canónicas, etc.), pueden ser fuente de inspiración en este sentido.

100. Igualmente necesarias son las estructuras y formas de evaluación periódica del modo en que se ejercen las responsabilidades ministeriales de todo tipo. La evaluación no constituye un juicio sobre las personas, sino que permite poner de relieve los aspectos positivos y las áreas de posible mejora en la actuación de quienes tienen responsabilidades ministeriales, y ayuda a la Iglesia a aprender de la experiencia, a recalibrar los planes de acción y a permanecer atenta a la voz del Espíritu Santo, centrando la atención en los resultados de las decisiones en relación con la misión.

101. Además de observar lo ya previsto por las normas canónicas sobre los criterios y mecanismos de control, corresponde a las Iglesias locales, y sobre todo a sus agrupaciones, construir sinodalmente formas y procedimientos eficaces de rendición de cuentas y de evaluación, adecuados a la variedad de contextos, a partir del marco normativo civil, de las legítimas expectativas de la sociedad y de la disponibilidad efectiva de competencias en la materia. En este trabajo, es necesario privilegiar las metodologías de evaluación participativa, potenciar las competencias de quienes, especialmente los laicos, están más familiarizados con los procesos de rendición de cuentas y evaluación, y discernir las buenas prácticas ya presentes en la sociedad civil local, adaptándolas a los contextos eclesiales. El modo en que se aplican los procesos de rendición de cuentas y evaluación a nivel local forman parte del informe presentado durante las visitas *ad limina*.

102. En particular, en formas adecuadas a los distintos contextos, parece necesario garantizar como mínimo:

- a) un funcionamiento eficaz de los consejos de asuntos económicos;
- b) la implicación efectiva del Pueblo de Dios, especialmente de los miembros más competentes, en la planificación pastoral y económica;
- c) la preparación y publicación (adecuada al contexto local y con accesibilidad efectiva) de un informe de rendición de cuentas económico anual, certificado en la medida de lo posible por auditores externos, que haga transparente la gestión de los bienes y de los recursos financieros de la Iglesia y de sus instituciones;
- d) la elaboración y publicación de un informe de rendición de cuentas anual sobre el desempeño de la misión, que incluya una ilustración de las iniciativas emprendidas en el ámbito de la *salvaguardia* (*safeguarding*: protección y cuidado de menores y personas vulnerables) y la promoción del acceso de los laicos a puestos de autoridad y su participación en los procesos decisionales, especificando la proporción en relación con el género;
- e) procedimientos para la evaluación periódica del desempeño de todos los ministerios y tareas dentro de la Iglesia.

Tenemos que darnos cuenta de que no se trata de un empeño burocrático en sí mismo, sino de un esfuerzo comunicativo que se revela como una poderosa herramienta educativa para cambiar la cultura, además de permitirnos dar mayor visibilidad a muchas iniciativas valiosas de la Iglesia y sus instituciones, que con demasiada frecuencia permanecen ocultas.

2. GURE ERREALITATEA AZTERTUKO DUGU

Aurreko testua irakurri ondoren, gure errealitatea aztertzeari ekingo diogu. Galdera hauei erantzungo diegu, parte hartzen duen kristau elkartearen errealitatea oinarri hartuta:

1. Zein da gure komunitateen egoera ekonomikoa, eta kristau elkartearen ondareari dagokion egoera? Ba al dugu ekonomia-kontseilua? Zeregin horretan lagun dezaketen pertsona egokiak al ditugu? Norbait gonbidatu ahal izango al dugu ekonomia-kontseiluko kide izan dadin edo ondarearen kudeaketan lagun dezan?
2. Autofinantzaketaren gaiak gure komunitateen diru-sarrerak eta gastuak arduraz kudeatzea dakarkigu: gastuak berrikustea, aurrekontuak egitea, ondarea mantentzeko beharrezkoak diren baliabideak egitea, erabiltzen ez den ondarea errentagarri egitea edo saltzea, kuoten sistema indartzea... Zein ekintza zehatz bultza genitzake, ahal den neurrian, gure kristau elkartearen autofinantzaketa bermatzeko?
3. Gardentasuna eta Elizaren ekonomiaren zaintza funtsezko gaiak dira gaur egun, baliabideen kudeaketa arduratsuan eta kontuak ematean ikuspegi garrantzitsuak lortuz. Zein ekintza zehatz garatzen ditugu kristau elkartearen parrokiako ekonomiaren gardentasuna bermatzeko? Zein kontrol jardunbide egoki edo praktika on bultzatu behar dira baliabide ekonomikoen kudeaketa egokia bermatzeko?

II. HASIERAKO TALDEAREN TOPAKETAREN GARAPENA

1. TESTUINGURUA

Topaketaren garapena koordinatzen duen pertsonak aztertu beharreko gaia aurkeztuko du, bilera baino lehen egin beharreko lana aipatuz.

Hasierako taldeko kideek topaketa prestatzen eman duten denboraren arabera, irakurketaren edukiaren aurkezpen txiki bat egin daiteke bileraren hasieran.

2. OTOITZA

Hitza entzutea: Eginetatik 2, 42-47

3. ENTZUTE-ARIKETA

Pertsona bakoitzak hitza hartuko du, "Gure errealitatean pentsatuz" ataleko galderen inguruan hausnartutakoa eta otoitza partekatzeko, eta besteen ekarpena arretaz entzuteko.

Galdera-sorta egin daiteke. Taldeko kide bakoitzak hiru minutuko denbora izango du galdera bakoitzari erantzuteko.

4. ELKARRIZKETA-ARIKETAK

Parte-hartzaile bakoitzari entzun ondoren, elkarrizketa bat irekiko da, partekatutako iradokizunak ezagutzeko, konbergentziak eta desadostasunak identifikatzeko, zalantzak eta kezkek argitzeko... erantzuteko planteatu diren gaien inguruan adostasun baterantz urratsak emanez.

Elkarrizketa honetan, parte-hartzaile bakoitzaren esku-hartzeak ez ditu hiru minutuak gainditu behar, guztien parte-hartzea ahalbidetuz.

5. PARTEKATUTAKOA ETA ADOSTUTAKOA JASOTZEN DUGU

Bileran esandakoa jasoko da, adostutakoa nabarmenduz.